

Berriketan


Debako herri aldizkaria

277. alea - 2022ko urria



Debako Kontalariak

Hamar urte kontu-kontari




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

KALITATERA
**EUSKAL
OKELA**

CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SO URTE
**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH



277. alea - 2022ko urria

AURKIBIDEA



ELKARRIZKETA | 6

Alemanian bizi den Xabier Gaztañagari elkarrizketa *Debarrak Munduan* atalean



ALBISTEAK | 8

Euskeraz Bagera zikloa, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan



ELKARRIZKETA | 10

Hamar urteko bidea egin dute Debaiko Kontalariak; eurekin aritu gara solasean



KULTURA | 12

Neomak eta Xahu musika taldeen lehenengo diskoak hizpide



KIROLAK | 14

Emaizta bikainak lortu ondoren, Munduko Txapelketan lehiatu da Goiatz Leibar

Berriketan

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com



Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Gertu

ISSN 2171-7656

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

kutxabank

ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

Guillermo Urkizari

1) Hara hemen bertsoak
Berriketarako,
ez kapritxo, baizikan
tokatzen delako. (bi bider)
Guillermo Urkizataz
zer esanik franko,
txalotzekoa denik,
badaogelako.

2) Mutrikuar petoa,
Debara joana,
amodioak jota,
Mari Terengana. (bi bider)
Ezkontzak fruitu onik
bazien emana,
besteak beste seme
alaba on bana.

3) Euskaldun jator bezain
herritar zintzoa,
hitzetatik jario
odolan mintzoa. (bi bider)
Kantuz ere bai, hitz lau
bezala bertsoa.
Non ote dabil orain
gure txoritxo...

4) Santa Agedaz eta
Gabon jai giroan,
eskean ibilia
presoak gogoan. (bi bider)
Azken urtetan, modu
serioagoan,
parrokiko korura
pozik ohi zen joan.

5) Baina hortik aparte
edozein garaitan,
elkartuak afari
edo bazkaritan, (bi bider)
kantari hasiko zen,
pentsa gabe bitan,
gozatzen ari zela
somatuz begitan.

6) Oraindik gehiago
behar zuen goza,
ez balitzaio heldu
herio zorrotza. (bi bider)
Hauxe egin nahi izan
diogun aitortza,
haintzat hartzeko behintzat
bere giza ontsa.



*Doinua: Nere sentimentua
Marian Larrañaga

sasoiiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 818

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba Kolegiatu zk. 20.000.975
Odontologoa

maitena
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379

Higiezin Zerbiztuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Ez gara isilik geldituko

Tabernetan, paseatzen, etxean, lanean ala okindegian, noiz edo noiz ziur guztiok pairatu izan dugula eraso matxistaren bat gure azalean. Edo, bestela, ziur denok izan garela halako erasoren baten testigu.

Eskatu gabe, onartu gabe, jaso eta jasan ditugun eraso matxistak aurpegi eta kolore askotakoak izan daitezke: zure hitza gutxietsi zuten egun hartakoa, zure gaitasunak zalantzan jarri zirenekoa, zure bikotekideak jeloskortasun neurrigabea erakutsi zueneko, baimenik gabe gizon batek ipurdia ukitu zizun gau hartakoa, kotxe batetik esandako hitz lizunek beldurtu zintuztene-

koa, sexu harremanak izatera behartuta sentitu zineneko...

Lehenengo pausoa erasoak identifikatu eta horiei izena jartzea denez, Deba eta Itziarko Talde Feministak azaroan sentsibilizazio kanpaina bat egingo du herrian. Sentsibilizazio kanpaina honen helburu nagusia jasandako eraso matxisten inguruan pentsaraztea da, horien inguruko kontzientzia hartzeko.

Hala, herriko emakume ezberdinek pairatutako eraso matxisten testigantzak era anonimoan jaso nahi ditugu, berauek agerian jarri, emakumeei ahotsa eman, elkar entzun eta eraso hauek zeinen ohikoak diren erakusteko.

Horretarako, herriko leku ezberdinetan (liburutegian, zenbait tabernetan, eskolan, zaharren egoitzan...), bi astez kutxa batzuk egongo dira, bizi izan ditugun eraso matxisten esperientziak anonimoki partekatzeko. Esperientzia hori paper zati batean idatzi eta kutxan sartu beharko da. Mezuak guztiz anonimok izango dira eta kutxa ezingo da zabaldu. Ondoren, jasotako testigantzeekin sentsibilizazio kanpainari jarraipena emango diogu.

Ez gara isilik geldituko, ez dugu eraso bat gehiago ere onartuko.

Gora borroka feminista!

Deba eta Itziarko Talde Feminista

iritzia

Etorkizunean zer?

Unibertsitateko ikasketak amaitzeaz nengoela, zer egin nahi nuen galdetu zidan amak. Erantzuna argi neukan: lan egin. "Ene, Itsaso, ederra txistea! Lan egin? Haur Hezkuntzako irakasle gisa lan egin? Ez, horixe. Segi ikasten".


Genero Berdintasunaren Sustapena, goi mailako gradua. Unibertsitatearen ondoren, goi mailako gradua? Batzuek zioten arraroa zela unibertsitateko ikasketak egin ostean lanbide heziketako eskola batean ikastea; beste batzuek, aldiz, ikasten jarraitzeko aukera ona zela esaten zuten.

Badakizue zer? Ikasten jarraitzea dela gaur egungo salbamendu bakarra, izan ere, gurasoekin bizi garen bitartean, nork behar du lan egitea? Ene, engainatuak, guztiak.

Aizue, ez da nire kasua! *Ojo al cristo.*

Orain, gustura, oso gustura nago. Pixkanaka hazten nagoela ikus dezaket, pertsona independente bilakatzen, eta etorkizuna pixkanaka marrazten.

Gaztetxoei, eta hain gazte ez direnei, zera esango nieke: etorkizuna marrazteko beti izango duzue aukera. Bitartean, gozatu bizi-tzaz, bizitzen.



ITSASO ICIAR

Uzuri
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

JZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Xabier Gaztañaga

“1982ko uztakoa” da Xabier Gaztañaga Galarraga eta hamahiru urte daramatza Debatik kanpo; jaioterrira bisitan etortzen bada ere, Alemania du bizileku gaur egun. Goi mailako Industria Ingeniaritza ikasketak egin zituen Donostia eta Bilbo artean, eta enpresa austriar batentzat dihardu lanean gaur-gaurkoz. Afizioengatik galdetzean, hiru nabarmendu ditu solasaldi honen hasieran: saxoa, surfa eta judoa. “Nire bizitzako ardatzak dira eta, orain, aita on eta bikote ez hain kaskarra izateko bidean laguntzen didate”.

Non zaude gaur egun? Zer nolatan?

Gaur egun Akisgran-en (Aachen-en), Alemanian, bizi naiz eta Vorarlberg-eko (Austria) Liebherr enpresarentzat egiten dut lan makinen kalkulu eta simulazioak eginez I+G sailean. Debatik orain 13 urte irten nintzen eta azkeneko 11 urteak Alemania eta Austria artean igaro ditut.

Zerk eraman zintuen atzerrira?

Motzean, ilehori batek! 2006an Dominikar Errepublikan egon nintzen Mugarik Gabeko Ingeniariak gobernuz kanpoko erakundearekin eta zerbait aldatu zen nire mundua ikusteko moduan. 2009an El Salvadorrera joan nintzen beka baten bitartez, eta urte eta erdi beranduago Alemaniara eta Austriara. Gaur egun, eta atzera begira jarrita, esango nuke egon naizen leku guztietan sentitu naizela etxeko; egokituz eta aurreiritzirik gabe mugituz, edonon sentitu naiz zoriontsu.

Zertan zabiltza orain?

Lanaz gain, errugbian urte asko jokatu ondoren, horietako bi Alemaniako 1. Bundesligan, Jiu jitsu Brasildarrean oso murgilduta nago gaur egun eta borrokarako grina dudana bitartean hala jarraituko dut. Saxofoia jotzen jarraitzen dut, musikak oso leku berezia du ene bizitzan. Neguan *splitboard* batekin Alpeetan barneratzen naiz, surfaren lekua betez, eta garai beroagoetan bela arinean ibiltzen naiz, lakuetan.

Espero zenuen bezalakoa da orain duzun bizilekua? Zerk harritu zintuen?

Bizi izan naizen leku bakoitzak erakutsi dit edertasunen bat. Akisgran-eko inguruak bizikletan ibiltzeko bikainak dira eta, historia gustatuz gero, denetarik dago, Karlomagoren tronua, gazteluak, Lehen eta Bigarren Mundu Gerretako aztarnak, Belgika eta Herbehereekin itsatsita izatea, eta abar.



Austriak, bestalde, Alpeetako edertasun paregabea eskaintzen du: mendiak, lakuak eta elur kirolen paradisua.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Oso garrantzitsua. Martin semearekin euskaraz egiten dut eta ahal dudana guztia egiten dut bere euskararekiko harremana onena izan dadin; gainera, gure hizkuntza “kodifikatua” da kaletik goazenean. Harrigarria da, era berean, leku askotan aurkitu izan ditudala euskaraz azaldu ahal diren toponimoak.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txirikiriko edo?

Alemanian eta Austrian hizkuntza ofiziala alemana bada ere, Akisgran-en *achenerplatt*-ez edo *ocherplat*-ez hitz egiten da eta Austrian ere dialekto ezberdinak daude; adibidez, Vorarlberg-en *alemanisch*-ez hitz egiten da, eta nahiko ulergaitza izan daiteke alemanez bikain jakin arren. Beraz, niretzat hizkuntza ezberdinak dira!

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Familia, lagunak eta itsasoa ekarriko nituzke gustura. Horra, berriz, zera eramango nuke: publikoarekiko kontzientzia, garbitasuna, lan-bizi kalitatea eta herri planifikazio kontzeptuak, non eraikuntza historikoek leku protagonista duten.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bueltatuko naizen ez dakit, baina behin eta berriz itzuliko nintzatekeela bai. Herrimina oraindik maite duzun baina askotan mindu zaituen bikotea bezala dela iruditzen zait batzuetan.

Laburrean

Paisaia bat: Deba eta itsasoa, Sorginetxetik.

Usain bat: itsasoko kresalarena eta Galtxako ogi egin berriarena.

Zapore edo jaki bat: amaren txibiak eta amamaren “kokretak”.

Gustuko ditut... garagardoak lagunartean.

Ez ditut gustuko... zuzengabekeriak eta bekaizkeria.

Amets bat: Debako herria berloratzen ikustea.

40 jaialditako sail ofizialetan lehiatu da Aitor Oñederraren *Ur azpian lore*



2021eko Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Zinebi jaialdiko sail ofizialean estreinatu zuten Aitor Oñederrak zuzendutako, ekoiztutako eta idatzitako *Ur azpian lore*, eta orduz geroztik beste hainbat nazioarteko jaialditan parte hartu du: Donostiako Zinemaldian edo Gasteizko Cortada lehiaketan, esaterako.

Ikus-entzunezko sortzaile eta ilustratzaile debarrak azpimarratu duenez, “oso ondo” doa urtea. “Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko jaialdirik entzutetsuenetan egon da film laburra”. Zehaztu duenez, urtebetean 40 jaialditako sail nagusietan parte hartzeko aukeratu dute zinta.

Datozen egun eta asteotan, berriz,

beste lau jaialditan lehiatuko da debarraren animaziozko film laburra: Talavera de la Reinako Pavez Sarietan, Arnedoko Octubre en Corto zinemaldi ezagunean, Granadako 28. Zuzendari Gazteen Jaialdian eta Cartagenako 51. Nazioarteko Zinema Jaialdian. Pozik agertu da bere lana beste lau jaialditan parte hartzeko hautatua izan delako. “Oso gustura hartu dugu berria; bada-kigu gure film laburra mimo handiz programatu eta proiektatuko dutela”.

Lana, gainera, Movistar Plus+ plataforman ikusteko aukera egongo da azarotik aurrera. “Lorpen handia da guretzat. Ez da erraza izaten horrelako plataformek film labur independenteen emisio eskubideak erostea”.


Bertso saioa egingo da azaroaren 4an KulturEkin programazioaren baitan

Kultur Elkartek Maiaien Akizu, Uxue Alberdi, Aitor Bizkarra eta Andoni Egañaren bertso saioa hartuko du azaroaren 4an, ostiralean, 20:00etan. Lau bertsolari horiekin batera, Manex Astigarraga izango da oholtzan, gai-jar-tzaile lanetan. Aurreikuspenen arabera, ordubete inguruko saioa izango da.

Kultur Elkartek eta Debako Udalak elkarlanean antolatutako KulturEkin egitasmoaren baitan egingo da emanaldia. Sarrerak salgai daude jadanik, hiru euroan, baina aurrez gut-tiak agortzen ez badira, bertso saioaren egunean bertan ere salduko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Abenduaren 28an egingo da KulturEkin programazioko aurtengo

azken ekimena. Alazne Etxeberriaren *Mujer vasca soltera busca...* bakarriketaz gozatzeko aukera izango da. Gaztelaniaz egingo da saioa, Kultur Elkartean, eta 16 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da.



MATTIN URBIETA

Onddo gabiltza

Dena garestitu den honetan, badira oraindik dirutan ordain ezin daitezkeenak. Nik ez daukat onddo edo perretxiko bila joateko ez ohitura ez ezagutzarik. Osaba Martinek oparitutako liburu eder bat badaukat, eta bada garaia hari begirada bat emateko... baina perretxikotan ibiliaren ibiliaz ikasten dela esango nuke, ezta hala? Beraz, onddoekin ikusten banauzue, izan ziur kasualitatez topatu ditudala, edo norbaitek oparitu dizkidala.

Betidanik iruditu izan zait zaletasun berezia, eta inbidia ederra ematen didate zerbait aurkituko dutenaren ziurtasunez mendi eta basoetara abiatzen diren horiek. Ez dakit honekin beste zaletasun batzuekin ere gertatu dena gertatu ote den: konfinamenduz geroztik errepidean bizikleta gehiago, itsasoan surf taula gehiago, mendian korrikalari gehiago, edozein txokotan furgoneta gehiago eta abar dabilta. Agian aurretiko joera da, ala zerbaitek egin du klik? Uneko moda, ala gizartearen isla? Gustatuko litzaidake jakitea saskien salmentak ere gora egin ote duen...

Azken egunetan uzta oparoa jaso eta hau banatzeko bezain eskuzabalak diren hainbat lagun inguruan izateko zoriona izan dut. Esango nuke horrek ere ezaugarritzen dituela perretxikoza-leak. Individualismoaren uztarriari lotuta bizi garen garaiotan, onddo eta perretxikoak eros daitezke, baina txapeldun izaki hauen aitzakiapean harremanak saretzeak ez du preziorik. Afari bueltan bada ere. Are gehiago beste onddo baten itzala ortzi-mugan ageri eta iragan mendeko mamuak haizatzen dituzten garaiotan.

Euskeraz Bagera jardunaldiak egingo dira Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan



Zuhatza Euskara Elkarte, Debako Udala eta Euskaraldia lanean hasiak dira azaroaren 18tik abenduaren 10era bitartean egingo den Euskeraz Bagera zikloa prestatze aldera. Dena den, oraindik ere osatzeke dago programazioa; bestelako eragileekin elkarlanean antolatu nahi dute eta, hortaz, proposamenak edo ekarpenak egiteko deia egin diete herriko talde zein norbanakoei. Ekarpenen bat egin nahi dutenek urriaren 31ra arteko epea izango dute horretarako; 688 879 631 telefono zenbakian jar daitezke harremanetan antolatzaileekin.



Euskaraldia

Hitzez ekiteko garaia lelopean egingo da aurtengo Euskaraldia, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, eta oraindik ere zabalik dago parte hartu nahi dutenentzako izen ematea. Oraingo honetan ere *ahobizi/belarrirrest* dinamika erabiliko da eta, norbanakoez gain, entitateek ere hartuko dute parte *ariguneak* osatuz; hau da, entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, enpresa...) euskeraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak.

Parte hartu nahi duten entitateek urriaren 31ra arteko epea dute izena emateko; norbanakoei, berriz, ariketa soziala hasi artekoa (Internetez egin dezakete, izenematea.euskaraldia.eus atariaren bitartez).

Dagoeneko ehunka bizilagunek eman dute izena gurean eta Euskaraldiaren herri batzordeak lanean jarraitzen du; hainbat batzar ireki egiteaz gain, egitasmoaren aurkezpen ekitaldia antolatu zuen joan den urriaren 7an, Plaza Zaharrean. Jende ugari batu zen hitzordura eta argazki herrikoia ere atera zuten.



Hamaika ekimen, euskara ardatz hartuta

Aurtengo Euskeraz Bagera zikloa Euskaraldiarekin batera abiatuko da, azaroaren 18an bertan, eta abenduaren 10era arte luzatuko da. Ez da kasualitatea. Izan ere, hiru asteko epe tarte horretan, beste bi data esanguratsurekin ere bat egingo baitu programazioak: Euskararen Nazioarteko Egunarekin (abenduaren 3an), batetik, eta Zuhatza Euskara Elkarte sortu zeneko 25. urtemugaren ospakizunarekin (abenduan), bestetik.

Hori hala, Zuhatza, Debako Udala eta Euskaraldia elkarlanean ari dira Euskeraz Bagera egitaraua prestatzen, eta bestelako eragile guztiei ere deia egin diete euren proposamenak egin eta ekimenarekin bat egin dezaten.

Ekintza eta data guztiak zehaztuta ez badaude ere, askotariko jarduerak aurreikusten dira programazioan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, adibidez, Mintzodromoa, literatur ekimenak edota musika emanaldiak izango dira aukeran. Abenduaren 2an, 22:00etan, Benito Lertxundik kontzertu berezia eskainiko duela ere iragarri dute.

Martxan da Errigoraren udazkeneko kanpaina



Azaroaren 10era bitartean egongo da abian Errigoraren kanpaina berria, eta Zuhatza elkarte-ko bazkideek Errigorako saskiak Deban bertan jasotzeko aukera izango dute beste behin ere.

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes duen ekimen herritar honek bi kanpaina nagusi izan ohi ditu urtero. Udaberrian, *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* lelopean bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba sortak banatzen dira. Udazkenean, berriz, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* lelo-

pean, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten dira eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egingen zaio (saski bakoitzaren balioaren % 25).

Eskaerak azaroaren 10era bitartean egin ahal izango dira, www.errigora.eus atarian edo, bestela, 848 871 223 telefonora deituta, eta Zuhatza Euskara Elkarte-ko bazkideek produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute, azaroaren 23an Ifar Kaleko bulegoan.

Euskal Kostaldeko Geoparkeak berriz ere gainditu du UNESCOren azterketa

UNESCOren Munduko Geoparke izendapenari beste lau urtez eutsiko dio Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Kalifikaziorik altuenarekin gainditu du azterketa, *Green Card* edo *Txartel Berdea* eskuratuta; ikerketa zientifikoaren, kontserbazioaren, hezkuntzaren eta natura-turismoaren alorrean Geoparkeak egindako lana eta bilakaera aztertu dute adituek.

Geoparkeen Munduko Sarean jarraitzeko babesia beste lau urterako berritzea lortu duen hirugarren aldia da hau, eta ez da inolako neurri zuzentzailerik identifikatu.

“Proiektu sendoa”

Berria “poz handiz” jaso dute Geoparkea osatzen duten hiru udalerriek (Deba, Mutriku eta Zumaiak), baita Leire Barriuso Geoparkeko kudeatzaileak ere: “Aitorpen honek agerian jartzen du UNESCOren balioak betetzen dituen proiektu sendoa dugula. Geoparkearentzat garrantzitsua da Geoparkeen Munduko Sarean jarraitzea, hori baita gure lan-esparrua. Aintzatespen honek gure ondare naturala eta kulturala zaintzeko eta sustatzeko ahaleginak areagotzera bultzatzen gaitu”, nabarmendu du Barriusok.

Joan den ekainaren 14tik 17ra bitartean egin zen



UNESCOKo adituen azterketa. Alemania-Poloniako Muskau Arc UNESCO Global Geoparkeko Manfred Kupetz, eta Italiako Pollino UNESCO Global Geoparkeko Egidio Calabrese izan ziren Geoparkearen azken lau urteotako kudeaketa eta aurre-irabazpenak aztertzeko ardura izan zuten bi ebaluatzaileak. Lau egunez, besteak beste, Euskal Kostaldeko Geoparkeko interes-gune nagusiak bisitatu zituzten eta eragile eta erakunde ezberdinetako ordezkariekin elkartu ziren.

iritzia

Urte barri zoruak igarri

Aurreko batean zera irakurtzen nion oso gustuko dudana zientzia-dibulgatzaile bati: narrasti eta sugeentzako beldurra hain zabaldua dela, ezen geneetan txertatu eta guraso-enganetik seme-alabengana helarazten den unibertsaletako bat izan daitekeela. Neure aldetik, neguko ilunalditik atera eta udaberriaren argitasuneranzko gogo-premia bizia ere horietako beste bat ez ote den nago.

Behin Santa Luzia edo Gabon jirako kon-tuetara iritsita, gure ama zenak berea jaurtiko zigun urtero batera hutsik egin gabe: “Urte barri zoruak igarri”. Amaren esaerako zoroa antzinako zoroa da, hau da, arrazoi bat edo beste tarteko, denon moldetik apartatzen

dena. Baina zoroak, zoroa izan arren, badaki naturari begiratzen eta badaki eguna, gutxi gorabehera, abenduaren erdialdetik (*Santa Lucía acorta la noche y alarga el día*) urtarrilaren erdialderako epean hasiko dela luzatzen, poli-ki-poliki.

Guk ez diogu jada naturari begiratzen. Ez diogu begiratzen eta ez diegu seme-alabei Bustiñaga etxe dotorea non kokatzen den irakasten; ezta pagadian hazten dela gibelurdina edo Gernikako arbola kantatzen ere. Beste gizarte mota bat da, diote. Tradizioa edota natura babestu beharra guri kristau-dotrina bezalaxe irakasten diegu: buruz, halaxe behar duelako. Beste dotrina bat, finean.



ENRIKE IZAGIRRE

LIZ.-ZK.: 3

Taxi Alain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Mari Seara eta Nahia Eguskizaga kontalariak

“Kontalarion proiektu hau denboran mantentzeko, interesgarria iruditzen zaigu jendea taldera gerturatzea”

Hamar urte bete dira Debako Kontalariak abian jarri zirenetik eta, urteurren berezi hori aitzakia hartuta, Mari Seara eta Nahia Eguskizaga taldekideekin elkartu da *Berriketan*.

Hainbat gai izan dituzte ahotan: besteak beste, taldeak orain arte egin duen ibilbidea eta horren balorazioa, jarduna aurrera eramateko izan dituzten zailtasunak, egungo funtzionamendua, aurrera begirako asmoak... Urtemugaren harira, gainera, zer edo zer antolatzeke asmotan dabiltzala ere aurreratu dute.

Bide batez, taldea nahiko osatua egon arren, jende gehiago ere ongi etorria izango litzatekeela aipatu dute.



Ezkerrean, Mari Seara eta, eskuinean, Nahia Eguskizaga.

Hamar urte bete ditu Debako Kontalariak egitasmoak. Nola sortu zen taldea eta zein izan zen honen guztia-
ren hazia?

Mari Seara (M.S.): Euskara Batzordetik iritsi zitzaigun proposamena. Gurasoen eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko espazio berriak sortzea zen helburua.

Nolakoak izan ziren hastapenak?

M.S.: Herritar talde bat bildu ginen eta, formazio txiki bat jaso ondoren, ikasturteko egutegi bat zehaztu genuen. Hori guztia egin ostean, hilean behin hasi ginen ipuinak kontatzen.

Ispiluen gelan lehen saioa burutu zenutenetik hamarkada bat igaro da. Zer balorazio egingo zenukete?

Nahia Eguskizaga (N.E.): Esperientzia oso aberasgarria izan da. Batetik, urte hauetan guztietan haur belaunaldi desberdinak hazten ikusi ditugulako eta, bestetik, gure artean sortu den harreman eta konplizidateagatik.

Zeintzuk izan dira orain arte eduki dituzuen zailtasunak?

M.S.: Alde batetik, urteetan taldean

sarrera-irteerak egon izan dira, eta momentu batzuetan jende gutxi egon gara egutegia betetzeko. Eta, bestetik, kosta egiten zaigu adin batetik aurrerako haurrak gure saioetara erakartzea.

Zer etorkizun aurreikusten diozue egitasmoari?

N.E.: Kontaketak egiten jarraitu nahi dugu, eta une honetan kontalari taldea nahiko osatuta dagoela esan dezakegu, baina kontalarion proiektu hau denboran mantentzeko, interesgarria iruditzen zaigu jendea taldera gerturatzea.

Urtemugari dagokionean, zer edo zer berezia eginez ospatuko duzue?

M.S.: Esku artean zerbait badaukagu, baina ez dugu *spoiler*-ik egingo (barre artean).

Zuen jardunari dagokionez, zenbat lagunen artean koordinatzen dituzue antolatzen dituzuen ekintzak?

M.S.: Ikasturteak dirauen bitartean egiten dugun saio bakoitzean bizpahiru kontalari aritzen gara. Beste taldekideek, berriz, kontaketa horietan bestelako laguntza eskaintzen dute: haurrei harre-
ra egin, espazioak prestatu edo txukundu, dokumentatu...

Taldera jende berria gerturatzea polita litzatekeela diozue. Interesa daukanak nola egin dezake bat zuekin?

N.E.: Taldera gerturatzen den pertsona oro ongi etorria izango da. Pertsona bakoitzak taldea aberasten duela pentsatzen dugu. Are gehiago, ahots bakoitzak taldeari kolore berria ematen diola uste dugu. Laguntzeko interesa duten guztiak gutako edozein kiderengana gerturatu daitezke. Gure posta elektronikora (debakokontalariak@gmail.com) idatzita ere jarri daitezke gurekin harremanetan.

Nola antolatzen dituzue saioak?

N.E.: Ikasturte hasieran egutegia zehazten dugu, eta betiere herrian antolatzen diren beste ekintzak kontuan izaten ditugu (mendi irteerak, film emanaldiak...). Ipuinei dagokionean, horien aukeraketa kontalari bakoitzak egiten du, baina gero kontalari taldeak erabakitzen du saio bakoitzaren egitura. Zenbait data esanguratsuren bueltan (Azaroaren 25a, Euskararen Nazioarteko Eguna, Martxoaren 8a,...), hala ere, kontaketa saio bereziak egiten ditugu.

Gustura zaudete saioek izaten duten harrerarekin?

M.S.: Bai. Boladak egon izan dira,

baina esan dezakegu orokorrean harrera ona izan dutela gure kontaketeak.

Ipuinak soilik umeen kontua direla diote askok. Baieztapen horrekin bat zatozte?

N.E.: Baten batek hori pentsatuko du, baina kontaketeetara laguntzera datozen heldu horien aurpegiak ikusita, esango genuke eurek ere gozatzen dutela ipuinekin. Bestalde, helduentzako kontaketeak egin izan ditugunean, egia da jendea erakartzea kostatzen dela, baina etorri direnek oso harrera ona egin izan diete saioei.

M.S.: Zoritxarrez, "ipuin" eta "helduak" kontzeptuak ez ditugu kulturalki erlazionatzen, baina istorio zirraragarriak, dibertigarriak, beldurgarriak... daude helduentzako edota nerabeentzako ere bai.

Saioen bidez herritarren irudimena elikatzen saiatzen zarete. Baina zergatik uste duzue dela hain aberasgarria ipuinak kontatzea? Ekintza bera zerk egiten du berezi?

N.E.: Ipuinek berezkoa dute irudimena elikatzea. Lehen, ipuinak ahoz aho transmititzen ziren, baina gaur egun esan genezake haurrek ez daudela ohituta irudirik gabeko ahozko kontakizunak entzutera. Ahozkotasanaren garrantzia

azpimarratu nahiko genuke; hitzaren presentzia, helduen eta haurren arteko komunikazio zuzena, iragazkirik gabea.

Ahozko narrazioak, besteak beste, irakurketa sustatzen duela esango zenukete? Edo istorioek emozioak bideratzen laguntzen dutela?

M.S.: Hasieran euskarriaz (ipuinaz) baliatuz kontatzen genituen istorioak, baina, orain, euskarri fisikorik gabe kontatzen ditugu sarritan. Eta bai, haurren aurpegiak ederki adierazten dituzte ipuinek sorrazten dizkieten emozio guztiak. Eta benetan sinesten dugu bizipen horiek guztiek liburuetara gerturatzeko lagunduko dutela.

Zer gomendio emango zeniekete saioetara bertaratu nahi dutenei?

N.E.: Presarik gabe etortzea eta zentzumen eta plazerari bide ematea gomendatzen dugu. Ipuinak altxorak dira!

“Zoritxarrez, ‘ipuin’ eta ‘helduak’ kontzeptuak ez ditugu kulturalki erlazionatzen”

Edozein kasutan, zer osagarri batu behar ditu, zuen ustez, ipuin on batek?

M.S.: Oso zaila da definitzea zein osagai izan behar dituen ipuin on batek. Baina gauza bat argi daukagu: kontaketa arrakastatsua izateko kontalariari ipuin horrek zerbait mugitu behar dio.

Eta kontalariak?

N.E.: Ez gara kontalari profesionalak. Beraz, gure kasuan nahikoa da ipuinak gustukoak izatea eta haurrekin gozatzeko prest egotea.

Ispiluen gelan hasi zenuten jarduna, baina azken hiru ikasturteetan beste hainbat tokitan ere antolatu dituzue saioak. Aurtengo berritasunetako bat saioak Ispiluen gelan eta ordu berean egitea izan da. Zergatik?

N.E.: Azken hiru urte hauetan, eta bizi izan ditugun garai arraroak kontuan izanda, oso gustura aritu gara Debako espazio desberdinetan, baina orain Ispiluen gelan jarraituko dugu gure jarduna. Egia esan, magia berezia du gune horrek.

Hasi berri den ikasturteari begira, zer asmo duzue?

M.S.: Aurreko urteetako dinamikari eustea, eta hamargarren urteurrena modu berezi batean ospatzea.



Tradizioa eta berrikuntza uztartuz, zazpi abestiz osatutako lehenbiziko diskoa aurkeztu du Neomak taldeak

2021eko abenduan kaleratu zuen aurkezpen abestia (*Ilargi berriak*) eta, orain, udazkenarekin batera, kaleratu du lehenengo diskoa Neomak-ek. Zazpi kanta propioak osatzen dute taldearen izen bera daraman diskoa. “Zazpi emakume gazte izanda, eta folkaz gain musika estilo ezberdinak gustatzen zaizkigunez, fusioatzea izan da helburua, guri gustatuko litzaikekeen musika estiloa sortzea”, laburbildu du Alaitz Eskudero taldekide debarrak.

Neomak osatzen duten zazpi kideak 2014an hasi ziren elkarlanean, Kepa Junkeraren Sorginak proiektuaren bultzatzen, eta orduetik gaur egun arteko bidea edo trantsizioa “naturala” izan dela uste du Alaitz Eskudero. “Proiektu hartarako batu gintuenean hurrengo sei urteetan etorriko ziren bi diskoak eta munduan barrena emandako kontzertuak espero ez genituen bezala, Sorginak amaitu zenean ere ez genuen uste bestelako proiekturik etorriko zenik. Kasualitatean baino gehiago sinesten dut nik kasualitatean, eta hala izan beharko zuen”.

Iazko abenduan ikusi zuen argia Neomak taldearen aurkezpen kantak (*Ilargi berriak*), baita estetika zaindu eta berritzailez ondutako bideoklipak ere. Eta, jarraian, *Hamen* izenburuko bigarren bideoklipa kaleratu zuten. “Bigarren hartan, benetako indarra hitzek eta musikak zuten eta, zaindua izan arren, estetika sotilagoa eman nahi izan genion”, dio Eskudero. Bere iritziz, hain zuzen, bi bideoklipen artean egindako aldaketa hartan sumatu zitekeen nolabait gerora taldeak hartuko zuten norabidearen arrastoa.

Zazpi abesti propioz osaturiko lehen diskoa dute orain eskuen artean. “Umetatik jaso dugun trikiti tradizionalari gure ukitua eman eta elektronikaz esperimentatuz lortutako emaitza aurkitu du bertan entzuleak”.

“Trikiti tradizionalari gure ukitua eman eta elektronikaz esperimentatuz lortutako emaitza da”

Folkaz gain, bestelako estilo batzuk ere uztartzen ditu diskoak. Eta, tradizioetik ez ezik, berrikuntzatik ere edaten du Neomak-ek. “Trikitixa eta pandero ezberdinak, eta tresna horiekin sortzen diren fandango eta arin-arinak izan ditzake oinarrian. Baina estilo ezberdinen soinua eta erritmoak gehitu dizkiegu instrumentu zein ahotsei. Beraz, tradizioetik eta berrikuntzatik, bietatik asko izan dezakeela esango nuke”, azaldu du musikari debarrak.

Maiatzaz geroztik 25 kontzertu inguru eskaini ditu Neomak-ek eta tarteka bestelako talde batzuekin ere partekatu izan du oholtza, Tanxugueiras-ekin Atlantikaldia jaialdian (Erreterian), esate baterako.

Bide propioa egiten

Oro har pozarren daude publikoak orain arte egindako harrerarengatik. “Erantzuna oso positiboa izaten ari da. Badaude aurretik ikusi izan gaituzten formatuan eta estiloan entzutera gerturatzeko direnak, baina ezuste atsegina eramaten dutenak. Eta badaude, era berean, berria den zerbait espero dutelako hurbiltzen diren ez trikitezaleak ere. Oso publiko zabalarengana iritsi izanaren zorzea dugu”, gaineratu du Eskudero.

Aurrera begira ere “pixkanaka bide propioa egiten” jarraitzeko asmoa du taldeak. Dagoeneko emanaldi ugari iragarri dituzte datozen aste eta hilabeteotarako. Adibidez, azaroaren 5ean Zestoan ariko dira, azaroaren 10ean Malagan, azaroaren 12an Galdakaon, azaroaren 19an Ereñotzun eta egun bat beranduago, berri, Berriozarren.



Arg.: Antonio Murillo (“Antonio Kajoi”)

Neomak

Taldekideak:

Eneritz Aulestia,
Alaitz Eskudero,
Leire Etxezarreta, Irati Gutierrez,
Maria Lasa, Amets Ormaetxea
eta Garazi Otaegi.

Ekoiztetxea: Airaka.

Grabaketa: Haritz Harreguy
estudioa (Usurbil). 2022.

Soinu teknikaria: Haritz
Harreguy.

Ekoizpena: Alejandro Jimbo
Páez.



Josu Salegi: “Xahu taldeko lau partaideen konposizioak daude diskoan, jazzaren lau ikuspuntu ezberdin”

Gero Gerokoak izenburupean plazaratu berri du Xahu musika taldeak bere estreinako diskoa. 11 abestiz osatutako lana da, heterogeneoa, jazzaren baitako ikuspuntu ezberdinez gozatzeko aukera eskaintzen duena.

Mikel Nuñez, Jon Ander Amigo, Unai Olabbarri eta Josu Salegik lagun artean sortu eta hazitako proiektua da Xahu; 2018an hasi ziren elkarrekin entseatu eta kontzertuak eskaintzen, baina aurrez ezagutzen zuten elkar, Musikeneko ikasle izan baitziren laurak. *Gero Gerokoak* hizpide hartuta, Josu Salegi saxofonista debarrarekin aritu gara solasean.



Arg.: Erika Díaz

Iaz, uztailen, Jazzez Blai jaialdiaren harira egin genizun elkarrizketan aipatzen zenuen pandemiaren harira hainbat proiektu bertan behera geratu zitzaizkizula, halabeharrez. Ez guztiak, ordea, ezta? Xahu “berpiztu” egin zenuten...

Hala da, bai. Xahuk irautea lortu du, zorionez. Kontzerturik gabe entseguak egiteak zentzua galtzen du neurri handi batean, baina uste dut taldean musika sortzeko gogoia izatea eta partaide bakoitzak Xahu norbere proiektu bezala sentitzea izan direla bizirauteko gakoak.

Zer dakar *Gero Gerokoak* diskoak?

11 abestik osatutako diskoa da eta bertan lau partaideen konposizioak daude, jazzaren lau ikuspuntu ezberdin. Disko heterogeneoa da, jazz estiloaren barruan denetarik dauka: be-bop, hard bop, egungo jazz edo euskal musikaren eraginak aurki daitezke bertan.

Nolakoa izan da sortze prozesua?

Hasieratik bakoitzak norbere konposizioak eraman ditu entseuetara, gure kantak interpretatzea izan baita helburuetako bat. Abestia osorik idazten du bakoitzak, talde guztiarentzat. Baina, jazz izanik, inprobisaziorako tartea ere lagatzen da.

Zeuk konposatutako piezak ere badira tartean. Zer nolakoak dira?

Diskorako nire hiru abesti aukeratu genituen: *Erika*, *Nai* eta *New Zortziko*.

Entzuteko errazak direla esango nuke. *Nai* duela urte batzuk lagun bati eskainitako kanta da, oso melodikoa, eta gaur egungo jazzean sailkatuko nuke. *New Zortziko* Xahuren hastapenetan idatzi nuen, jazz eta euskal musika bateratu nahian. *Erika*, berriz, nire emazteari eskainitako abestia da, grabaketa baino lehen idatzi nuen eta ikutu modernoa dauka.

“Ez da batere erraza jazz estiloko zuzenekoak lotzea, batez ere udako jazz jaialdietatik kanpo”

Lan berria jendaurrean aurkezten hasiak zarete zuzenekoetan, ezta?

Bai, Muni jazz-en (Errioxa), Bilboko Guggenheim-en eta Villalacre-n (Burgos) diskoa aurkezteko aukera izan dugu.

Eta zer nolako harrera izan duzue?

Orokorrean harrera ona izaten ari dela esango nuke. Kontzertuetan oso giro ona sortu da eta emanaldien ostean disko batzuk saldu ditugu, ez da seinale txarra.

Erraza al da jazz estiloko zuzenekoak lotzea? Zailtasunik izan duzue bidean?

Ez da batere erraza, batez ere uda

Gero Gerokoak

Taldekieideak:

Mikel Nuñez (pianoa), Jon Ander Amigo (baxua), Unai Olabbarri (bateria) eta Josu Salegi (saxoa).


Ekoiztetxea:

Errabal Jazz. Grabaketa: Bilboko La Terminal kulturgunea. 2022.

Grabaketa teknikaria:

Iñigo Olabbarri.

Diskoaren azala: Laura Garcés.



garaiko jazz jaialdietatik kanpo. Zoritxarrez, jazzak ez du jende gehiegi mugitzen eta ez dago jazz kontzertuak antolatzen dituen toki askorik.

Hurrengo emanaldiak noiz eta non izango diren zehazterik bai?

Oraingoz ez daukagu ezer itxita, kontzertu bila gabilta. Ea zerbait irteten den!


Ea ba hala den... Bien bitartean, non entzun edo eros daiteke zuzeneko diskoa?

CDak salgai dauzkagu nahi duenarentzat; Fnac-en, Internet bidez (www.hotsak.com-en, gure taldearen www.xahuquartet.wixsite.com atarian...) edo zuzenean niri eskatuta lor ditzakezue. Bestetik, Spotifyn ere entzun daiteke.

Goiatz Leibar kirolaria

“Hau guztia jende askori esker izan da posible, eta horiei guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke”

40 urte ditu Goiatz Leibar Intxaustik eta, Deban bizi den arren, Elgoibarren sortu zen. Urteak daromatza askotariko kirolak praktikatzen, baina azken denboraldian txirrindularitzan aritu da jo eta su. Iazko abenduan abiadura lasterketak egiteko bizikleta erosi zuen, eta ordutik zenbait erlojupeko lasterketan parte hartu du, baita emaitza bikainak lortu ere. Emaitza horiei esker, Munduko Txapelketan aritzeko txartela lortu du. Irailean Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak Trenton (Italia) antolatutako txapelketan lehiatu zen, eta 29. postua lortu zuen.



Uztailean Coimbran (Portugal) jokatu zen lasterketa lehen bosten artean amaitu zenuen, eta zure kategorian lehen postuan amaitu zenuen. Espero zenuen halako emaitza lortzea?

Erlojupeko probetan lehiatu naizen estreinako urtea izan da aurtengoa. Abenduan erosi nuen bizikleta, eta Coimbrakoaren aurretik lasterketa bakarrean parte hartu ahal izan nuen. Aragoiko lasterketa diziplina horretan parte hartzen nuen lehen proba bazen ere, irabazi egin nuen. Bertan eman ziguten Coimbrako lasterketaren berri, eta hala animatu nintzen.

Nola gogoratzen duzu Coimbrako proba?

Teorian, zailtasun gutxiko 20 kilometroko ibilbide laua zen. Nire kasuan, zegoen bero handia izan zen txarrena, baina emaitzarekin gustura geratu nintzen. Nire kategorian, 40-44 urte bitarteko kategorian, podiumeko goreneko kuxara igotzea itzela izan zen.

Coimbrako lasterketan lortutako emaitza bikainari esker, Munduko Txapelketan aritzeko txartela lortu zenuen. Maila horretako txapelketa batean inoiz lehiatzea espero zenuen?

Noski ezetz! Txirrindularitza zaleta-

sun bat besterik ez da niretzako. Egia da azken hiru urteotan entrenatzailea daukadala, baina helburua da denbora libre ahalik eta hobekien baliatzea, eta gustura nago erabakiarekin.

Arlo pertsonalean, nolakoa izan da halako proba batean parte hartzea?

Egia esan, erlojupeko probak ez dira errepideko probak bezain erakargarriak: bizikleta berezia behar da eta probak, gainera, motzak eta leherkorak dira. Sailkapen txartela norberak lortuta munduko txapelketa batean parte hartzeko aukera edukitzea, gainera, sekulako esperientzia eta izugarria izan da.

Mundu mailako onenak batu zineten proban, nola gogoratzen duzu?

Sekulako maila egon zen. Nire kategorian 46 parte hartzaile izan ginen, eta 29. amaitu nuen. Bi aste lehenago A gripearekin gaixotu nintzen, eta horrek nire errendimenduan eragina eduki zuen; arantza hori daukat, bestela emaitza hobea lor nezakeelakoan nago.

Azken urtean gauza handiak lortu dituzu. Zein da sekretua?

Sekretuetako bat familiaren babesa izan da; beti daude nire ondoan. Abentura hauek guztiak onartu eta

horiek nik bizi ditudan pasio berarekin bizi dituzten bizilagunak edukitzeaz zorteko naiz. Entrenatzeko orduan ere oso zorrotza naiz; beraz, horrek ere lagunduko zuela uste dut.

Lorpen bikainak izan dituzu, baina ametsa egia bihurtzeko bide horretan hainbat zailtasun ere izan dituzu, ezta?

Munduko Txapelketa hau afizionatu edo master mailakoentzat egindakoa denez, Espainiako Federazioak ez du esku hartzen. Hau guztia jende askori esker izan da posible, eta horiei eskerrak eman nahi nizkieke. Eneko Ugaldere bitartez Amaiak Baten laguntza jaso dut eta materiala laga edo babestu nauen beste jende askoren laguntza ere eduki dut; laguntza hori guztia nik eskatu gabekoa izan da, eta asko eskertzen da. Oro har, lagun asko eta asko interesatu dira nire abenturez eta, noski, familiari ere eskerrak eman nahi nizkieke.

Munduko Txapelketan aritu ostean, ba al daukazu beste txapelketa edo lasterketa entzutetsuren bat begiz jota?

Munduko Txapelketara bueltatzea gustatuko litzaidake, batez ere proba irabazi zuen frantsesari gerra pixka bat gehiago emateko. Urte osoa falta da horretarako; beraz, ikusiko dugu.

Iñigo eta Ane Falagan neba-arrebak eta Aitor Ibarluzea Basque Crossfit Txapelketaren final handira bidean

Estreinakoz antolatu duten Basque Crossfit Txapelketaren finala Bilboko Bilbao Arenan jokatu da azaroaren 4, 5 eta 6an, eta Debako hiru atletek finalean aritzeko merezitako txartela eskuratu dute. Mutrikuko Crossfit Lumako instalazioetan entrenatzen diren hiru kideak bakarka lehiatuko dira, nor bere kategorian. Hiru egunez hainbat ariketa egin beharko dituzte eta, aurkarien maila ona bada ere, final handian sartu eta emaitza ona lortzea espero dute. Txapelketaren finalaren atarian, euren asmoak zeintzuk izango diren partekatu nahi izan dute *Berriketan*-ekin.

Modako kirol bihurtu da *crossfit*-a. Intentsitate handian, indarra eta erresistentzia uztartzen duten askotariko ariketa funtzioetan oinarrituriko entrenamendu modalitate espezifikoak da. 70eko hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetan sortutako jarduera da eta, urte oso gutxian, gero eta jarraitzaile gehiago lortu ditu Euskal Herrian. Horren adibide da, hain zuzen, Bilbon estreinakoz egingo duten Basque Crossfit Txapelketa ere; Euskal Herriko eta Espainia mailako atleta eta talderik onenak hartuko ditu azaroaren 4, 5 eta 6an Bilbao Arenan jokatuko den txapelketa.

Norgehiagoka berri horretan bakarka parte hartuko dutenen artean hiru debar daude: Iñigo eta Ane Falagan neba-arrebak eta Aitor Ibarluzea. Aurrez Internet bidez gauzatu diren bi sailkatze faseetan egindako lan onari esker, finalean aritzeko txartela eskuratu dute. Gizonezkoen RX kategorian lehiatuko da Iñigo Falagan, eta Ane Falagan eta Aitor Ibarluzea, berriz, eskalada kategorian lehiatuko dira.

Finalean sartzeko ahaleginetan ehunka atleta aritu badira ere, soilik 40 atleta lehiatuko dira hiru kategoria horietan, eta horien artean daude hiru debarrak. Antolatzaileek proposatu dituzten mugimendu eta ariketa gimnastikoak ondo egin ostean, gainera, aurreneko postuetan amaitu dute sailkapen fasea: Ane Falagan bere kategoriako onena izan da, eta Aitor Ibarluzea eta Iñigo Falaganek, berriz, bederatzigarren amaitu dute.

Finalerako txartela lortzea ez dela "erraza" izan azpimarratu du Ibarluzea. "Lehenengo proba igaro arte ez nengoen oso ziur, baina bigarrena egin ostean, banekien hurrengo fasera igartzeko aukerak nituela". Duten esperientzia kontuan hartuta, Falagan neba-arrebek finalean egotea espero zuten. "Sailkapen fase baterako prestatzea eta hori grabatzea gogorra izaten da beti, baina espero nuen aukeratutako

zerrendan sartzea", dio Iñigok. Sailkapen faseko lehenengo bideoa grabatu eta gero nahikoa lasai zegoela adierazi du Anek. "Lehenengo postua lortu nuenez, ziur nengoen aurrez aurreko faserako sailkatuko nintzela".

Azken txartela lortzea jomugan

Finalera begira "urdu" jartzen hasita daudela aitortu dute hirurek. Ibarluzearentzat, esaterako, txapelketa batean parte hartzen duen lehen aldian izango da: "Lehenengo txapelketa denez, garrantzi handia du niretzako. Batez ere, dudan maila ikusi eta orain arte egindako lana erakustera emateko balio izan dit". Falagan neba-arrebek, berriz, esperientzia gehixeago dute. Anek parte hartuko duen bigarren txapelketa izango da honakoa. Iñigorentzat, aldiz, parte hartuko duen hirugarrena izango da. "Bakarka parte hartuko dudan bigarrena izango da Bilboko".

Final handian sartzea amesten dute

hirurek eta, emaitza alde batera lagata, argi dute azken fasean "onena" ematen eta esperientziak gozaten saiatuko direla. "Orain arte entrenatutako guztia erakusteko momentua izango da. Dena ematera aterako naiz eta final handira iristea espero dut. Garrantzitsuena, baina, txapelketaz gozatzea dela iruditzen zait, eta, aldi berean, ditudan akatsak ikusi eta zuzentzea", azaldu du Ibarluzeak.

Aurrez aurre jokatuko duten finalean "ondo pasatzea" eta bere esku dagoen guztia "ahal denik eta ondoen" egitea da Ane Falaganen nahia. "Ez ditut beste atletak ezagutzen, ezta bertan egin beharko dugun lana ere. Beraz, ezin dut esan finalera iritsiko naizen ala ez, baina podiumean egoten saiatuko naiz". Iritzi berekoa da bere neba ere. "Final handian sartzeko da nire nahia, baina hori ez dago nire esku. Dena emango dut, eta ahalik eta txapelketa onena egiten saiatuko naiz. Sailkatu ala ez, beste atleten mailaren araberakoa izango da".



Ezkerretik eskuinera, Iñigo Falagan, Ane Falagan eta Aitor Ibarluzea.

Azaroaren 6an egingo da IX. Manuel Mateos oroimenezko lasterketa

Deba Xtreme Kirol Taldeak Manuel Mateos oroimenezko lasterketa antolatuta du beste urte batez; aurtengo proba azaroaren 6an jokatu da.

Lasterketa 11:30ean hasiko da eta, Aldats pilotalekutik abiatuta, 10 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak. Ibilbidea erabat laua dela azpimarratu dute antolatzaileek. "Parte hartzaileek zumarditik zehar prestatu dugun zirkuituari bi bira eman beharko dizkiote lehendabizi eta, amaitzeko, beste bira motzago bat osatu beharko dute".

Sariak egongo dira lehenengo sailkatzen diren hiru emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat. Ohi modura, lehen postuan helmugaratzen den herritarrarentzako zein beterano azkarrenarentzako ere sari berezia egongo da.

16 urte beteta dituztenek parte har dezakete lasterketan. Zabalik dago izen ematea www.herrikrosa.eus atarian; probaren egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera.



Europako WSL txapelketako irabazle izendatu da Bitor Garitaonandia



20 urtetik beherakoen junior pro mailako Europako WSL txapelketa irabazi du Bitor Garitaonandia surflari debarrak; urriaren 15ean Sao Miguel (Azoreak) uharterko Praia de Santa Barbaran jokatu zen Europako junior zirkuituko laugarren eta azken jardunaldiaren ostean eskuratu zuen titulu europarra.

Surflari debarrak nahiko zirkuitu erregularra eta sendoa burutu du. 2.100 puntu lortu ditu guztira: Casablancan (Maroko) jokatu zen zirkuituko lehen proba irabazi ostean 1.000 puntu lortu zituen, Pantin-go hondartzan (Galizia) egin zen bigarren proban bosgarren postua eskuratu ondoren beste 500 puntu lortu zituen eta Azoreetan hiru-

garren postuan sailkatu ondoren, beste 600 puntu eskuratu zituen.

Txapelketa irabazi ostean, pozez gainezka azaldu zen: "Iaz zailtasun handiak izan nituen, eta titulu honek nire konfiantza areagotzen du. Duela sei hilabete norbaitek titulua irabaziko nuela esan izan balit, ez nioke sinetsiko". Europako titulua lortuta, gainera, zuzenean junior mailako WSL txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du; txapelketaren finala datorren urtarirlean jokatu da Kalifornian (AEB).

20 urteko debarrarentzat, junior mailan parte hartu duen azken urtea izan da; hurrengo denboraldian Challenger Series (CS) lehiaketarako sailkatzea dauka begiz jota.

Munduko Boccia Txapelketan jokatzeko aukeratu dute Amagoia Arrieta


Garuneko paralisia eta hartutako kalte zerebrala duten pertsonen Espainiako kirolen federazioak bost kirolari hautatu ditu abenduaren 2tik 14ra Rio de Janeiron (Brasil) egingo den Munduko Boccia Txapelketan parte hartzeko, eta horien artean izango da Amagoia Arrieta; BC1 kategorian ariko da.

Nazioarte mailan beste behin lehiatzeko aukera izatea "albiste pozgarria" dela azpimarratu du. "Gogor entrenatzen ari naiz, eta emaitza on bat lortu dezakedala uste dut. Munduko Txapelketa honetan asko dago jokoan; 2024an Parisen jokatu diren Paralinpiar Jokoak ditut jomugan, eta horietan parte hartzea ziurtatzen duen txartela lortzea izango da nire helburua".

Deban bizi den kirolariak, gainera, GaituzSport saria jaso du



urrian; goi mailako lehiaketan dabilzanein eskainitako saria eman diote, Boccian izandako kirol lorpenengatik. "Esker oneko sentitzen naiz jasotako aitortzagatik. Debako herritarrei eskaini nahiko nieke saria eta, nola ez, Debako Udalarri, kiroldegian entrenatzeko orduan erraztasunak emateagatik. Nigan sinetsi duten babesleen laguntza ere eskertu nahiko nuke: Eibar Kirol Elkartearena, Kirolgirena eta Basque Team-ena, hain zuzen".



Aitziber Cortazar, Debegesako Garapen Jasangarria saileko burua:

“Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei”

Debegesak ENERGIA BULEGOA garatu du eta Aitziber Cortazarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri eman digu.

Zein da Energia Bulegoaren funtzio nagusia?

Debabarreneko zortzi udalerriek eskaintzen duten zerbitzua da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak diruz lagunduta, eta zenbait funtzio ditu. Herritarrei zuzenduriko alderdiari dagokionez, eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak ipintzea dira helburu nagusiak.

Horretarako, zer eskaintzen duzue?

Alde batetik, Debegesaren web orrialdearen barnean Energia Bulegoaren atala dago: energia.debegesa.eus. Energia berriztagarrien (panel fotoboltaikoak, panel termikoak, geotermia, aerotermia eta biomasa) eta birgaitze iraunkorren (teilatuek birgaitzea, igogailua instalatzea edo aldatzea, berogailuen instalazioa...) inguruko oinarritzko informazioa modu didaktikoan jaso daiteke bertan. Gainera, faktura elektrikoa optimizatzeke aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Webguneko informazioaz gain, norbanakoek euren kasu zehatzen inguruko zalantzak argitu dezakete?

Bai. Horretarako bi bide ditugu. Batetik, webgunearen bitartez gurekin harremanetan jarri daitezke inprimaki batzuk betez eta argitu nahi den gaia zehaztuz. Bestetik, 943 82 01 10 telefonora deituta hitzordua eskatu daiteke Debegesan, edota email bitartez kontsulta bideratu: agenda2030@debegesa.eus

Energiaren gaia ahoz aho dabil. Garrantzi berezia hartu du gaur egun Energia Bulegoak?

Debegesak aspaldi landu ditu energiaren inguruko gaiak eta, eboluzio naturalari jarraituz, gaur egungo egoerarekin egin du bat. Energiaren prezioak nola dauden ikusita, egia da orain dela urtebete inork egingo ez lituzkeen planteamenduak egiten ari direla orain. Zentzu horretan, Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei. Esate baterako, komunitate bateko bizilagunek eguzki-plakak instalatu nahi badituzte, zein pauso eman behar



Aitziber Cortazar Debabarreneko Garapen Agentziako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna da.

duten argitzen diegu, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dugu, tramitazio legalaren ingurukoa... Horretarako, laguntze aldera, kontsulta egiten dutenen aldetik ahalik eta informazio gehien jasotzea komeni da, gero eta erantzunik zehatzena emateko.

Enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Bai. Esate baterako, energia fotoboltaikoa ekoizteko duten gaitasuna neurtzen diegu. Azken urtean, 30 enpresa baino gehiagok erabili dute zerbitzua. Orain, turismo sektoreko enpresei energia analisi auditoretza egitea eskaintzen ari gara, energia berriztagarriak ipintzeko zein aukera izan ditzateketen ikus dezaten.

URRIAK 30, IGANDEA

-09:00. **Mendi ibilaldia**, Arrano Elkartearen ekimenez. Irteera Plaza Zaharretik.

-19:00. **Zinema: Blackbox**, Kultur Elkartean.

AZAROAK 1, ASTEARTEA

-**Santu Guztien jaia** eta ospakizuna, 11:00etan Santa Maria elizan eta 12:30ean Itziarren.

AZAROAK 3, OSTEGUNA

-19:00. **Nesken binakako pala txapelketa**.

AZAROAK 4, OSTIRALA

-20:00. **Bertso saioa**, Kultur Elkartean.

AZAROAK 6, IGANDEA

-08:30. **Mendi irteera bateratua**: Legutio, Jarindo-Legutio.

-10:00. **Nesken binakako pala txapelketa**.

-11:30. **IX. Manuel Mateos oroimenezko lasterketa**, Aldats pilotalekutik abiatuta.

-19:00. **Zinema: Las ilusiones perdidas**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

AZAROAK 7 ETA 21, ASTELEHENAK

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

AZAROAK 8-15-22-29, ASTEARTEAK

-**Bastiñuixan** Euskaraz Jolasean, zumardiko kioskoan. 16:30ean, *Zabu-zibu* (3-5 urte bitartekoentzat); 17:30ean, *Txirrintxon* (6-9 urte).

-Oinarrizko bizi euskarria eta desfibrilatzailea erabiltzeko **ikastaroa**, Itziarren (informazioa: 943 19 92 55 / apuntatu@itziar.eus).

AZAROAK 10-11, OSTEGUNA ETA OSTIRALA

-17:00. **Tailerra: Berdintasunaren aurrean, gizonok zer?** (Hiruki Larroxa), Ispiluen gelan.

AZAROAK 13, IGANDEA

-19:00. **Zinema: Barbacoa**, Kultur Elkartean.

AZAROAK 15, ASTEARTEA

-19:00. Santa Maria elizako atariaren **berritze lanen aurkezpena**.

AZAROAK 18, OSTIRALA

-Euskaraldiaren hasiera.

AZAROAK 20, IGANDEA

-18:00. **Bakarrizketa: Magma Mia** (Beatriz Egizabal), Ispiluen gelan.

-19:00. **Zinema: La crónica francesa**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

AZAROAK 22, ASTEARTEA

-07:00. **Santa Zezilia eguna ospatzeko diana**, herriko musika talde ezberdinen eskutik.

Itziar Peria

Bi urteko etenaldiaren ondoren, Itziar Peria egingo da **azaroaren 1ean**. Itziar Peria Elkartearen eta Auzo Udalaren ekimenez egingo da, auzolanean antolatua, eta goiz osoko egitaraua izango du (09:00-14:00). 15:00etatik aurrera herri bazkaria eta erromeria izango dira frontoian. Garraio publikoa erabiltzeko deia egin dute antolatzailerak eta autobus zerbitzua ere jarriko dute Txixarroko aparkalekutik.

Esker oneko omenaldia odol-emailei

Sei odol-emailek omenaldia jasoko dute **azaroaren 6an**. 25 aldiz ematearren, Amaia Larrañaga, Maite Txurruka eta Ihintz Urkiri omenduko dituzte; 50 ateraldirekin, Manuel Agirregabiria; 75 aldiz ematearren, Joseba Sagarna; eta, azkenik, 100 ateraldirekin, Jose Luis Aperribai. Bestalde, **azaroaren 11n** izango dira **odol-ateratzeak** Luzaron. Hilaren 7an hasiko dira txandak hartzen: 612 402 103 (16:00-20:00).

Lehiaketak

-Debako tokiko **Beldur Barik** ikus-entzuzko lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 11 da. Sariketaren oinarriak www.deba.eus atarian.

-**XVII. Tene Mujika Beka** sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabalteko eta gure literatura aberasteko asmoz. Abenduaren 11n bukatuko da lanak aurkezteko epea. Oinarriak www.deba.eus atarian.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

URRIAK 27-31 > Mutriku

-**Gaba Beltza**: hitzaldiak, haurrentzako ekintzak, Beheko Doinuak jaialdia, heriotzaren kafea, Arima Dance taldearen kalejira...

URRIAK 28, OSTIRALA > Elgoibar

-19:00. **Kontzertu akustikoa**: Bikustik (Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxaga bikotea). Herriko Antzokian.

URRIAK 29, LARUNBATA > Eibar

-Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen **Kuikui ikuskizuna** Coliseo antzokian. Bi saio izango dira aukeran, 16:30ean eta 19:00etan.



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: azaroak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.

Burgoa Zuazo: urriak 31 eta azaroak 1, 2, 3, 18, 19, 20.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 5 eta 12
BURGOA ZUAZO: urriak 29 / azaroak 19 eta 26



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplantak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)




ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

ITURLAN, S.L. Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



AHOLKULARITZA LIDERRA, TOKIKO ARIMAREKIN

ASESORÍA LIDER
CON ALMA LOCAL

Torrealday adituak, Gipuzkoan ere bai

Torrealdayk 35 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta hainbat herritan banatuta dagoen bulego-sare zabala. Enpresa handiei, enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu integrala eskaintzen diegu, kualifikazio handiko eta etengabeko prestakuntzan dagoen profesional-talde baten eskutik. **Ondarroa, Ermua eta Irungo** gure bulegoetatik kalitate handiko zerbitzua eskaintzen dugu, hurbiltasuna eta konfiantza osoa eskainiz. Gainera, bezeroei beren jarduerari eragiten dieten berrikuntza guztien berri ematen diegu, baita gure azpiegiturari eta gaitasunari esker jaso ditzaketen laguntzen eta diru-laguntzei buruzko informazioa ere. Jar zaitez gurekin harremanetan, eta inolako konpromisorik gabe informatuko zaitugu.



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Torrealday
aditua

www.torrealday.es

mendian

Mintza
POZA
PRAKTIKATU

aurzotan

ZUREKIN

euskaraz

EGIN NAHI DUGU

parkean

tabernan

 **mintzalaguna.eus**

IZEN EMATEA:

Urte osoan zabalik

www.labur.eus/Zuhatza_Deba

943 191 383

Antolatzaileak



Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAHIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA



Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

**Bat egiteko
garaia da**



Saskien balioaren %25
Nafarroa hegoalde eta
erdialdeko euskalgintzara
bideratuko da

urriak 22 - azaroak 10

errigora.eus



Saski beltza 55€

Oliba-olio birjina estra · Orburuak · Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak · Botila ardoa · Ezlia · Kardua
Mahats-zukua · Piper-mamia · Teilak · Molineritoak
+ 2023ko egutegia



Saski berdea 65€

eko

Oliba-olio birjina estra · Orburuak · Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak · Botila ardoa · Ezlia · Kardua
Arroz integrala · Pasta · Konbuxta tea · Teilak · Sagar-zukua
Txitxirioak + 2023ko egutegia



Saski zuria 75€

Oliba-olio birjina estra · Orburuak · Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak · Botila krintza · Ardo zuri apartua
Patxarana · Ardi-gazta · Patxaran-pastak · Polboroiak
+ 2023ko egutegia